

San Fermin Jaia, Aiton-amonekin gozatu

Uztailaren 7an **¡GORA SAN FERMIN!**

Udal Ikastola Partzuergoan prest ditugu aiton-amonak, izan ere aspaldian esana genien jai hau oso-osorik beraiekin ospatzeko prestatua genuela. Urte guztian ez bezala, beraiek eta gu. Beraiek, ilobak eta gu, argiago esanda, denak elkarrekin, denak txurigorritz jantzirik, festarako gogoarekin, zezenaren aurrean korri egiteko prest.

Zergatik ordea, aiton-amonen jaia? Gauza hauek ez bat eta ez bi sortzen direnak izaten dira gehienetan eta hau ere horrelaxe sortua izan zen bere garaian. Olentzero, Inauteri edota San Nikolas Titikiko jaiak bezala, opor aurreko jai modura San Ferminak ospatzea otu zitzaigun. Baina arazotxo bat genuen: ez zen Oiartzungo ohitura inondik inora, nahiz eta gure haur koxkorrenentzat zezenaren inguruko pasadizoak ezagunak izan.

Ez dakit zenbat buelta eman genion gaiari. Proiektu berri zaleak izanda ideiak barra-barra joan ziren ateratzen eta berehala genuen gure asmoa edukiz hornitua. Entzierroa egingo genuen, zezena egitea ez baizen gauza zaila. Sanferminetako arropa osatzea ere konplikaziorik gabekoa iruditzen zitzaigun. Bere abesti propioa bazuen, Iruñan kantatzen zutena euskaratzen bagenuen behintzat eta motibazioa ziurtatua ikusten genuen, azken finean zezena tartean egonda haurrek gozatu zutela ziur ginelako. Politik ikusten genuen.

Eta horrela, haritik tiraka iritsi ginen gaur egun egiten dugun jaiera. Aiton-amonak haur-eskolan presentzia berezia behar zutela ikusten genuen, izan ere gure haurrek gurasoekin bezala aiton-amonekin harreman oso estua izaten dute adin horietan eta zoritxarrez aiton-amonak asko dira euren ilobak non egoten diren ezagutzen ere ez dutenak. Bat baino gehiago penatuko da bere baitan: *Gixajok! Hain ttikiak eta, badaude ba hor sarturik !?...*

Erabakita zegoen. Beraiei eskainiko genien jaia! Haur-eskolako giroa nolakoa zen ezagutzeko aukera eman behar genien eta gainera beraiei bakarrik, gurasorik gabe. Entzierroa elkarrekin egingo genuen, haurrekin batera hamaiketako eta denok batera dantzaz eta jai giro alaietan goiza pasako genuen. Esan eta izan, hemen gaude zazpi urteren buruan aiton-amonen jaia ospatzen.

Jai honek bi etapa izan ditu: Karrikan, adin guztietako haurrekin egiten genuena bat, eta orain Ikastolan 2 urteko haurrekin egiten duguna.

Karrikan hasi ginen eta bertan integratu genituen auzoko aiton-amonak ere. Juan Joxe eta Karmen, Trini eta Anttonio, Luixa, Xixili, Mañoli eta Joxe Luix, Maritxu, Juxtina... haur-eskolako bizitzan oso gertutik parte hartzen duten auzokideak ditugu denak eta

Sanferminetan ere bakoitzak bere ukitua emanez hartzen zuten parte: Anttonio eskusoinua joaz, Karmenek erroskilak eginez, Joxe Luixek aranak ekarriz, Trinik patata tortillak eginez... Denak zerbaitetan kolaboratuz. Denak pozik. Entzierroa Iturburutik plazaraino izaten zen eta hamaiketako atarian eguraldiak laguntzen bazuen behintzat. Dantzarako musika, guraso musikari baten eskutik, kamarera lanetan irakasleok, botilero lanetan berriz, horretarako prestatzen zen aitonaren bat, amonak eta aitonak ilobekin gozatzen, euren gelak ezagutzen, eurekin jostatzen... Tartean haurrek aiton-amonei egindako opari banaketa, gauza xumeak baina irakasleok ilusio handiz prestatutakoak.

Baina hori bukatu zen, Karrikakoa diot. Partzuergoa eratu eta haur handienak ikastolara ekarri genituenean ezin izan genuen jarraitu, izan ere bertan geratu ziren haurrak ttikiegiak bai ziren jaiari etekina ateratzeko. Aldatu beharra zegoen.

Gaur egun beste forma eman diogu Sanfermin jaiari. Bi urteko haurrekin ospatzen dugu eta euren aiton-amonekin. Entzierroa bere horretan jarraitzen du eta eguraldi txarra eginez gero ikastolako frontoia aski eskura geratzen zaigun alternatiba dugu. Suziria, musika, urduritasuna eta algara ez dira inoiz falta. Hamaiketako ere modu desberdinez eratzen dugu. Orain aiton-amonak dira, gelaka, hamaiketako ekartzen dutenak. Gela batekoek tortillak, bestekeok edariak, beste gelakoek, berriz, postreak eta laugarren gelakoek beste jateko desberdinak. Kamareka lanetan beti bezala, irakasleok Haurrek era beren bazkari berezia egiten dute, aiton-amonekin batera, horretarako aproposa dugun jantokian elkaturik. Opari banaketa, humorea eta oroimen ona bere horretan jarraitzen dute.

Esperientzia ikaragarri aberatsa da gure ustez. Haurrei oso bizi geratzen zaie egun hau eta giro goxoan egiten dugun zerbait da. Irakasleontzat asko merezi duen esfortzua. Gure lanaren helburuetako bat familia eta eskola-bizitza uztartzea da, horregatik ahalegintzen gara hainbeste. Haurren bizi-pozak merezi du. Haur txikien heziketak eskatzen du.

AITON-AMONA BATZUEN IRITZIA

Karmen Sarasua, Iturriozkoa: *Egun polita, haurra ikaratu egin bazen ere zezenarekin. Hamaiketako goxoa jarri zuten. Eta aiton-amona asko juntatu ginen. Oso ongi pasa genuen.*

Maria Irastorza, Borrondikoa: *Oso festa berezia da. Hurrek asko gozatzen dute aiton-amona guztiak bertan ikusita. Gainera beraiek gonbidatuta joaten gara. Harro sentitzen dira eta sentiarazten dizute beraien festa batetan parte hartzen duzulako. Eta guk bapo betetzen dugu sabela. Oso giro alaia egoten da.*

Adolfo Leibar eta Ixiar Mendarte: *Oso gogorapen atsegina aiton-amona eta iloben festa. Festa zoragarri bat da San Fermin eguneko entzierroa. Andereño taldearekin ospatzen genuen. Oso festa polita denok parte hartuez. Andereñoak gogoz saiatzen ziren festa ondo ateratzeko eta egia esan oso gustura ibiltzen ginen, dantza eta guzti. Karrikatar batzuekin denok lunch eder batekin bukatzen genuen. Zorionak danoi bihotzez.*

Pepi Castillejo eta Faustino Galdos: *Disfrutamos de la alegría y la espontaneidad de los niños en la fiesta y nos volvimos niños como ellos compartiendo un hamaiketako muy goxua con otros abuelos pendientes de nuestros nietos.*

Arantxa Etxarri eta Fernando Otegi: *2001-07-07. San Fermin eguna. Ikastolan festa txiki bat antolatu zuten haurtxoak beren aiton-amonekin egun hori ospatu zezaten eta naparra naizenez maindire zahar batekin gona zuri dotore bat egin nuen festara joateko. Eta justu-justu iraun zuen tente, etxera iristerako hautsi bai zen. Oso ongi pasa genuen. Haur batzuk zezenarekin pixka bat izutuak, besteak pozik. Gero jana eta edariekin tripa bete eta musika pixka bat ere izan zen, abestu ere egin genuen eta "gora San Fermin" abestuz, etxera oso kontentu.*

Joxe Mari Iburguren eta Maite Nieto: *Nire ilobak bi urteko geletan zeudenean eta San Ferminak ospatzen zituztenean bertan benetan ondo pasatzen genuen, goizean hurbildu jantzi txuri-gorriarekin, ilobekin egon, entzierroa ikusi, beste aiton amonekin solasean aritu janari goxoa jaten genuen bitartean eta bukatutakoan animatzen zirenak dantza saioa egin.*

Aurora Jaimerena eta Xabin Etxebeste: *Alaitasun zoragarria izaten da guretzako horren jaialdi polita bizitzea, gure ilobak, aiton-amonak eta andereñoak elkarturik. Ezin da hobeto antolatu. Iruñan bezala. Gozatzen dugu denak elkarrekin; ez da gehiago eskatzerik. Opariak, ilobak egindako eskulanak, lunch dotorea, abesti egokiak, jantzi naparra... Egun horretan konturatzen gara nola zaintzen dituzten gure ilobak haur-eskola horretan. Esker mila antolatzen duzuei. Aurten jota batzuk kantatuko ditut gainera, naparra bainaiz.*

Maixol Arana eta Iñaki Urkia: *San Fermin eguna haur-eskolan egun berezia izan zen familia osoarentzat. Aiton-amonak eta haurrek protagonismo osoa eduki zuten eta egun berezia bizitu zuten. Haur-eskola kalera ireki zen eta gurasoak inbiritan egon ziren. Oso festa polita eta inizatiba positiboa izan zen.*